

<p>ETXEARRIKO UDALAREN AUZO-TAXI EDO LANDA TAXI ZERBITZUA EMATEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA</p> <p>Zerbitzuaren helburua da herritarrei aukera ematea beraien etxeetatik herrigunera eta handik etxera azkar, merke eta modu iraunkorrean joateko. Horrez gain, udalerriko garraio publikoaren sektorea bultzatu nahi da, baita lurralde-oreka nahiz udalerriko mugikortasun iraunkorra indartu ere.</p>	<p>ORDENANZA REGULADORA DEL PRECIO PÚBLICO POR PRESTACION DEL SERVICIO DE AUZO-TAXI O TAXI RURAL DEL AYUNTAMIENTO DE ETXEARRIA</p> <p>Con el objetivo de ofrecer a la ciudadanía una forma rápida, barata y sostenible para acercarse de sus domicilios al casco urbano y viceversa, impulsar el sector del transporte público del municipio y reforzar el equilibrio territorial y la movilidad sostenible del municipio, se implementa el servicio de Auzo-taxi o Taxi Rural.</p>
<p>1. artikulua.- Xedea.</p> <p>Ordenantza honen helburua Auzo-taxi edo landa-taxi zerbitzua emateagatiko prezio publikoa arautzea da; Etxebarrian erroldatuta egonik, eta mugikortasun urria izanagatik, elbarritasunagatik edo-ta gaixotasunagatik edo bakarrik bizi delako, diru gutxiren truke, Etxebarriko herrigunera joateko aukera izango dute bertan dauden oinarrizko zerbitzuak erabiltzeko (gizarte zerbitzuak, udaletxea, medikua, farmazia, jubitatuen egoitza, dendak, eskola, e.a.) hain zuzen ere, baita garraio publikoarekin konektatzeko ere. Era berean zerbitzu hau erabili ahal izango da Markina-Xemein auzoko herrira joateko, aipatu oinarrizko zerbitzuak eta Etxebarrian eskaintzen ez diren beste zerbitzuak erabiltzeko (posta, bankuak, e.a.)</p>	<p>Artículo 1.- Objeto.</p> <p>Es objeto de esta Ordenanza la regulación del precio público por prestación del servicio de Auzo-taxi o Taxi rural, consistente en un servicio de taxi a precio reducido para todas las personas empadronadas en Etxebarria que por su falta de movilidad, por su incapacidad y/o enfermedad, ó bien por vivir sola y precisar conectarse y/ó trasladarse al centro urbano de Etxebarria, para ser atendido por los servicios básicos del pueblo (servicios sociales, ayuntamiento, médico, farmacia, hogar del jubilado, tiendas, escuela, etc.) así como para conectarse con los servicios de transporte público disponible. O que igualmente deban trasladarse al pueblo vecino de Markina-Xemein para los servicios básicos citados y otros como: servicio postal, banco, etc...., siempre y cuando no los ofrezca el municipio de Etxebarria.</p>

<p>2. artikulua.- Auzo-taxi/Landa-taxi zerbitzuaren funtzionamendua.</p> <p>Zerbitzuan parte hartu ahal izateko, aurrez jakinarazi beharko da taxia erabili nahi dela. Zerbitzua ahalik eta modu eraginkorrenean bermatu eta antolatze aldera, erabiltzaileak bidaia taxi-gidariarekin adostu beharko du aurreko eguneko 21:00ak baino lehen, 636978562 telefonora deituta (Bustindui taxilaria)</p> <p>Ez da zerbitzurik egongo larunbat, igande eta jaiegunetan.</p> <p>Zerbitzua erabiltzen dutenek 8. artikuluan arautzen den prezio publikoa ordaindu beharko dute.</p> <p>Taxilariak zenbatutako eta bikoiztutako ordainagiriaren txeketegia izango du. Zerbitzua egin ondoren erabiltzaileari ordainagiria emango dio, agiri bikoitza gorde egingo du eta gero fra.ri erantziko dio Udalari aurkezten dionean .</p> <p>Udalak taxilariari fra.ren zenbatekoa ordainduko dio. Fra. horretan egindako zerbitzu-kopurua xedatuko da, baita kostua eta kobratutako prezioa (kenduta).</p>	<p>Artículo 2.- Funcionamiento del Servicio de Auzo-taxi/Taxi rural:</p> <p>Para acceder al servicio será necesario concertar el traslado previamente. De tal forma que para poder garantizar y organizar el servicio de la manera más eficiente, el usuario deberá acordar el viaje con el taxista antes de las 21:00 del día anterior, llamando teléfono 636978562 (Bustindui taxia)</p> <p>El servicio no se prestará en sábados, domingos ni festivos.</p> <p>Los usuarios del servicio vienen obligados a abonar el precio público que se regula en el artículo 8ª de la presente ordenanza.</p> <p>El taxista dispondrá de un talonario de recibos numerado y duplicado. Tras prestar el servicio entregará el recibo correspondiente al usuario, guardándose el duplicado para aportarlo al Ayuntamiento, como justificante de su facturación.</p> <p>El ayuntamiento abonará al taxista el importe de la fra. emitida por el taxista, donde constará los servicios realizados y su coste, así como lo deducido por el cobro.</p>
<p>3. artikulua.- Auzotaxi zerbitzuaren erabiltzaileak eta bete beharreko baldintzak.</p> <p>Zerbitzua Etxebarrian erroldatuta dauden pertsonentzat da, 1. art.an xedatzen diren baldintzak betetzen dituztenentzako, hain zuzen ere.</p>	<p>Artículo 3.- Destinatarios del Servicio de Auzo Taxi y requisitos a cumplir.</p> <p>El servicio está dirigido a las personas empadronadas en Etxebarria, que cumplan los requisitos detallados en el art. 1</p>

<p>4. artikulua.- Zerbitzuaren diru-muga globala.</p> <p>Zerbitzu honi aplikatu ahal zaizkion baliabideak ekitaldi bakoitzerako onetsitako aurrekontuetan dagokien partidan urtero esleitutakoak izango dira gehienez ere.</p>	<p>Artículo 4.- Límite económico global del servicio</p> <p>Los recursos aplicables a la prestación de este servicio serán como máximo los que anualmente se doten en la correspondiente partida de los Presupuestos aprobados para cada ejercicio.</p>
<p>5. artikulua. Lege-urratzeak eta zehazpenak.</p> <p>Datuak ezkutatzearen edo zerbitzua erabiltzeko eskubidea ematen duten baldintzetan iruzur egitearen ondorioz, arau-hausteak eskubide hori bertan behera uztea eta behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzultzea ekarriko du, gauza daitezkeen lege-jardueretan eragin gabe.</p>	<p>Artículo 5.- Infracciones y sanciones.</p> <p>Las infracciones por ocultación de datos o fraude en las condiciones que dan derecho al servicio, darán lugar a su revocación y al deber de reintegrar los descuentos indebidamente obtenidos sin perjuicio de las acciones legales a que hubiera lugar.</p>
<p>6. artikulua.- Ordaintzeko betebeharra</p> <p>Ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaindu beharko dute Etxebarriko Udalaren auzo-taxi edo landa-taxi zerbitzuari loturiko ibilgailuetan ibiltzen diren pertsonak.</p>	<p>Artículo 6.- obligados al pago</p> <p>Están obligados al pago del precio público regulado en esta Ordenanza quienes se trasladen en el vehículo/s adscrito/s al servicio auzo-taxi o taxi rural del Ayuntamiento de Etxebarria.</p>
<p>7. artikulua.-Zerga egitatea</p> <p>Prezio publiko honen zerga egitatea izango da auzo-taxi edo landa-taxi zerbitzuari loturiko ibilgailuetan ibiltzea.</p>	<p>Artículo 7.- Hecho Imponible</p> <p>Constituye el hecho imponible del presente precio público el traslado en el vehículo/s adscrito/s al servicio de Auzo-taxi o taxi rural.</p>
<p>8. artikulua.- Zenbatekoa</p> <p>Udalbatzari dagokio Ordenantza honetan arautzen diren prezio publikoak egokitzea, Tokiko Ogasunak arautzen dituen</p>	<p>Artículo 8.- Cuantía</p> <p>Corresponde al Pleno de la Corporación la modificación de los precios públicos regulados en la presente Ordenanza, de conformidad con lo dispuesto en el</p>

<p>Legearen Testu Bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuaren (martxoaren 5eko 2/2004) 47. artikulua xedatutakoari jarraikiz.</p> <p>Auzo-taxi edo landa-taxi zerbitzuaren prezio publikoa bi eurokoa da bidaiako bakoitzeko.</p>	<p>artículo 47 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales.</p> <p>El Precio Público por prestación del servicio de Auzo-taxi o Taxi rural asciende a dos euros por trayecto.</p>
<p>9. artikulua.- Ordaindu beharra</p> <p>Prezio publiko hori bidai-zerbitzua ematen den unean kobratuko da.</p>	<p>Artículo 9.- Obligación de Pago</p> <p>El devengo de este precio público tendrá lugar en el momento en que se preste el servicio.</p>
<p>10. artikulua.- Kudeatze-arauak</p> <p>1.- Ordenantza honek aurreikusten dituen prezio publikoak kontura kargatuko dira.</p> <p>2.- Hemen arautzen diren prezio publikoen zorrak premiamenduzko administrazio-prozedura bidez eskatu ahal izango dira, eta aplikagarria den dirubilketa araudiaren arabera egingo dira.</p> <p>3.- Zerbitzua eman ondoren, ezingo da ordaindutako zenbatekoa berreskuratu Udalaren erantzukizunetik at gelditzen diren arrazoiak direla eta.</p> <p>4.- Prezio publikoa ordaintzen ez bada, ezingo da jardueran parte hartu zenbateko hori ordaindu arte.</p> <p>5.- Udalak eskaintzen dituen zerbitzu hauek gorabeherak izan ditzakete zerbitzuari dagozkion arrazoiak direla eta; zerbitzuren bat gauzatu ezingo balitz, behar besteko epearekin emango zaie horren berri erabiltzaileei.</p>	<p>Artículo 10.- Normas de Gestión</p> <p>1.- Los abonos de los precios públicos contemplados en esta Ordenanza se realizarán mediante cargo en efectivo.</p> <p>2.- Las deudas por los precios públicos aquí regulados podrán exigirse por el procedimiento administrativo de apremio y de conformidad con la normativa de recaudación que sea de aplicación.</p> <p>3.- Una vez realizado el servicio no procederá la devolución de los importes abonados por causas ajenas a este Ayuntamiento.</p> <p>4.- La falta de pago del precio público impedirá tener acceso a la actividad hasta que éste sea abonado.</p> <p>5.- La realización de estos servicios que oferte el Ayuntamiento pueden sufrir alguna variación por razones del servicio, avisándose con la suficiente antelación a los usuarios si no fuera posible la realización de algún servicio.</p>

<p>11.-artikulua.- Legedi aplikagarria</p> <p>Ordenantza honetan aurreikusi ez diren kasu guztietarako, Tokiko Ogasunak arautzen Legearen Testu Bategina (Testua 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5ekoak) onetsi zuen); Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea; abenduaren 17ko 58/2003 Zerga Lege Orokorra, eta Tasa eta Prezio Publikoei buruzko apirilaren 13ko 8/1989 Legea erabiliko dira.</p>	<p>Artículo 11.- Legislación Aplicable</p> <p>En todo lo no previsto en la presente Ordenanza se estará a lo dispuesto en el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria, la Ley 8/1989, de 13 de abril, de Tasas y Precios Públicos.</p>
<p>AZKEN XEDAPENA</p> <p>Ordenantza hau indarrean sartuko da testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean.</p> <p>Etxebarria, 2017ko martxoaren 17an.</p>	<p>DISPOSICION FINAL</p> <p>Las presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente al de la publicación de su texto íntegro en el Boletín Oficial de Bizkaia.</p> <p>En Etxebarria, a 17 de Marzo de 2017.</p>

